


# 2025

## Literatura Lehiaketa HAURRENTZAT

Certamen Literario  
infantil en euskara

[barañain.eus](http://barañain.eus)



Ayuntamiento de Barañain  
Barañaingo Udala



Udalaren euskara  
zerbitzua  
Servicio municipal  
de euskera

Gobierno  
de Navarra



Nafarroako  
Gobernua



euskarabidea

Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2025eko udaberrian antolatutako haur eta gazteentzako literatura lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 126 lan aurkeztu ziren eta epaimahaikide aritu zirenak dira:

*Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil y juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañain en la primavera de 2025. En total se presentaron 126 obras, y el jurado estaba formado por:*

## EPAIMAHAIA - JURADO

LEHENDAKARIA - PRESIDENTE

Pablo Arcelus Cavallero

## EPAIMAHAIKIDEAK - MIEMBROS DEL JURADO

Alaitz Institutuko irakasleak - *Profesoras Instituto Alaitz*  
Judith Mariezkurrena eta Saioa Oskoz

Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak - *Profesorado C.P. Alaitz*  
Ander Esevenri eta Amaia Olite

Barañain Institutuko irakaslea - *Profesora Instituto Barañain*  
Violeta Perez Arana

Sahats-IKA Euskaltegiko irakasleak - *Profesoras Euskaltegi Sahats-IKA*  
Verónica García eta Eider Canales

ARGITALPENA - EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara arloa - *Ayuntamiento de Barañain-Área de euskera*

INPRIMAKETA - IMPRESIÓN

Ttipi-Ttapa

LEGE GORDAILUA - DEPÓSITO LEGAL

LG NA 1214-2025

Gure zorionik beroenak literatura lehiaketa honetan parte hartu duzuen ikasle guztioi, bereziki sarituak izan zaretenoi. Argitalpen honi esker, zuen kontakizun zoragarriak partekatu ditzaiegu. Bertan jasotako istorioek edertasunari buruzko hausnarketara garamatzate, eta, hitzek duten indarrari buruzko gogoeta egitera ere bai.

Oraingo honetan saritua ez bazara izan, gonbita luzatzen dizut berriro saia zaitezzen, agian hurbil ibili zara baina eta ez dakizu, kontuan izan ahaleginak beti duela saria.

Badira 35 urte jada honako literatura lehiaketa hau sustatzen gabiltzala, eta guretzat oso pozgarria da ikustea zenbat istorio kontatu dituzuen denbora guzti honetan. Hori dela eta, lehiaketarekin aurrera jarraituko dugu, ahalik eta adierazpenik handiengan indartzeko eta, horrela, euskaraz idazten duten artista berriak aurkitzeko.

Nire agurrik beroena eta esker ona esperientzia zoragarri hau posible egin duzuen guztioi.  
dira:

*Nuestras más sinceras felicitaciones a todo el alumnado que habéis participado en este certamen literario, y enhorabuenas a los premiados y premiadas. Gracias a esta publicación podemos compartir vuestros maravillosos relatos, que nos trasladan a la reflexión sobre la belleza y el poder de las palabras.*

*Si en esta oportunidad no has recibido ningún premio, te animo a intentarlo nuevamente, tal vez estuviste cerca y no lo sabes, considera que el esfuerzo siempre tiene su recompensa.*

*Llevamos 35 años fomentando este certamen literario y para nosotros es muy gratificante constatar la cantidad de historias relatadas en todo este tiempo. Por esta razón seguiremos adelante con el certamen, para potenciarlo a su máxima expresión y descubrir así nuevos talentos y artistas de la palabra en euskera.*

*Mis más cordiales saludos y sincero agradecimiento a todos los que habéis hecho posible esta maravillosa experiencia.*



Iz. - Fdo.

PABLO ARCELUS CAVALLERO -

Kultura, Euskara eta Auditorioa Batzordeburua  
*Presidente de la Comisión de Cultura, Euskera y Auditorio.*

## PIRAMIDEEN IBILGUA

Lizar Gorria Uriel

1. SARIA (LH-3.)

Bazen behin, gau misteriotsu batean, Pontxa izeneko pertsona alai eta ausart bat.

Egun batean, Pontxa Egiptora joan zen piramideak ikustera. Egipton zegoela, argi misteriotsu bat ikusi zuen.

- A, ze arraroa! – esan zuen Keops piramidea begiratzen zuen bitartean.

Pontxak piramidera sartzea erabaki zuen baina sartu bezain pronto, atea itxi zen.

- Lagundu! – esan zuen Pontxak.



2 aste pasa ziren eta Pontxa lo zegoela, bat-batean, piramide barruan zegoen sarkofago bat ireki zen eta... Momia bat atera zen! Momiak 2.899 urte zituen eta oso jatorra zenez, piramidetik ateratzeko bide bat erakutsi zion Pontxari. Orduan, aizkora bat hartu zuten eta piramidearen 10 ate apurtu zituzten.

Piramidetik ateratzerakoan, denbora 80. urtera bidaiatu zutela konturatu ziren!

Nola egingo dute 2 lagunek bere garaiera berriz itzultzeko?



## ELEFANTE KOLORETSUA

Rukia Idoate De Julián

2. SARIA (LH-3.)

Bazen behin Afrikako sabana batean, Saumu deitutako elefante ama bat. Saumu haurdun zegoen.

Egun batean Lili jaio zen, Saumuren lehenengo umea. Baina arazo bat zegoen. Lili elefantea ez zen elefante guztiak bezalakoa. Lili lila kolorekoa zen! Elefante guztiak iseka egin zioten.



Hala pasa ziren urteak. Lili handitzen joan zen baina lila kolorea ez zitzaion aldatzen. Maiatzaren 21ean etxetik joan zen. Aspertuta zegoen hainbeste iseka entzuteaz. Jakin nahi zuen ea koloretako beste elefanteren bat ote zegoen munduan.

Lehenengo Indiara joan zen, gero Madagaskarrera, gero Tailandiara... Munduari bueltak eman zizkion, baina ez zuen koloretako elefanterik aurkitzen.



Azkenean etxera bueltatu zen. Orduan pentsatu zuen: "Berdin zait desberdina izatea, niri gustatzen zait lila kolorekoa izatea".

Egun horretatik aurrera, Liliri, egunero, bere gorputzaren kolorea aldatzen hasi zitzaion. Oso pozik geratu zen eta elefante guztiak harriturik geratu ziren.

Eta hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila sabanako plazan!

**GOLOSINAZKO MUNDUA**

Izel Piedra Marcilla

**1. SARIA (LH-4.)**

Dena golosinak ziren mundu batean hasten da dena. Mundu horretan, jendea bizi zen. Miren deitzen zen neska oso jator bat eta Eneko deitutako mutil bat zeuden. Baina Eneko oso oso gaiztoa zen. Enekok bikote bat zuen Maria izenekoa. Enekok eta Mariak ume bat zeukaten. Eta neska horrek 10 urte zituen eta Sara deitzen zen.

Egun batean, Miren oso aspertuta zegoen, eta golosinak jaten hasi zen. Baina momentu bat iritsi zen non zerbait ukitu zuena. Oso gogorra zen. Orduan eskuekin hartzen saiatzen hasi zen. Tiraka eta tiraka, atera zuen! Eta altxor bat zen. Mirenek ezin zuen sinistu eta super pozik jarri zen. Baina Enekok Miren saltoka ikusi zuen altxor batekin eta orduan Enekok, Maria abisatu eta korrika joan ziren altxorra kentzera.

Miren saltoka zegoela Eneko eta Maria ikusi zituen. Orduan, Miren beldurtu egin zen. Baina ihes egin nahi zuenean, Eneko eta Maria ailegatu ziren eta altxorra kendu zioten.

Miren oso triste joan zen Sararengana dena kontatzera. Sara haserretu egin zen ze bera ez zen bere gurasoak bezain gaiztoa. Eneko eta Maria etxera iritsi zirenean saltoka oso pozik hasi ziren, baina altxorra ireki zutenean, ez zegoen ezer!

Sara horretaz enteratu zen eta Mireni esan zion. Orduan Sara eta Miren barre egiten hasi ziren. Bapatean, entzun zuen: "benga, eskolara joan behar duzula! Sara, benetan, amets bat izan da".

**BIDEO-JOKOEN GUDA**

Xabi Adrian Merino

**2. SARIA (LH-4.)**

Dena Nafarroako Barañainen gertatu zen egun batean, eta hor iritsi nintzen ni, Xabi. Nintendora oso lasai jolasten ari nintzen eta ez nintzen konturatu nire inguruan gertatutakoaz.

Nire gorputza bakarrik mugitzen zela konturatu nintzen. Aurrera begiratu nuenean ezin nuen imajinatu ikusten nuena. Bideo-jokoaren barruan nengoen! Bideo-jokoan nola sartu nintzen pentsatzen egon nintzen tarte batez. Bideo-jokoek askatasuna lortu zuten. Milaka urtez saiatu ondoren 4. pareta apurtu zuten. Ni bezala, beste ume asko jolasten ari ziren eta ni bezala sartu ziren.

Baina umeak ez ziren lasaiak! Bakarrik irabazi nahi zuten eta hor hasi zen guda. Han zeuden bi bideo-joko: GTA 5 eta FORNITE. Borrokan hasi ziren imajinazioa izaten eta armak lortu zituzten. Beste bideo-jokoek guda ikusterakoan gaizki ulertu zuten. Pentsatzen zuten bideo-joko bat zela eta irabazi nahi zuten beraz, borrokan hasi ziren eta bapatean nire mundura etorri ziren.

Minecraft zen nire mundua eta berarena AMONG US. Hasi ginen eta ia hil behar nuenean super arma bat egin nuen jendea teletransportatzeko eta tximista batekin eman nion eta lurrera bidali nuen. Nik irabazi nuen!

Lurrera joaterakoan guztiok lagunak egin ginen eta elkarrekin bideo-joko partida batzuk egin genituen.

## MAIDERREN ABENTURA

Eloísa Rivas Rotella

### 1. SARIA (LH-5.)

Txerriek hegan egiten zuten garaian, hamabi urteko neska bat Elizondon bizi zen. Bere izena Maider zen.

Maiderek begi berdeak zituen, ile marroia eta puntak urdin-argiak. Bere belarritakoek bihotz itxura zuten eta kolore oso alaiakin margotuta zeuden. Sudurra eta ahoa txikiak ziren eta belarriak ere. Ez zen oso altua, ertaina zen, eta azala ez zuen oso argia.

Beti praka bakeroak janzen zituen, mauka motzeko kamisetak eta jertsei horia kaputxarekin.

Maidere oso neska alai, zintzoa, azkarra eta atsegina zen, baina batzuetan haserretzen zen. Animaliak asko gustatzen zitzaizkion baina, aldiz, birusak ez zitzaizkion batere gustatzen, beti hartzen zituelako.

Elizondo oso koloretsua zen, alai, kotxe gutxi zeuden eta natura pila bat.

Egun batean, Maider, bere izebaren sabaira igo zen eta eguneroko bat aurkitu zuen. Ireki zuenean, mapa bat bere barruan aurkitu zuen, eta mapan altxor bat ezkutatua zegoela jartzen zuen. Baina gero, izkina batean, zerbait idatzita zegoela ikusi zuen, eta irakurri zuen "Altxorra bilatzea oso arriskutsua izaten ahal da, orduan kontuz, espero ez dituzun gauzak aurkitu ahal dituzu. Zorte on!"

Baina berari bost axola zitzaion arriskutsua baldin bazen, liburu itxi, motxilan sartu eta beira jaitsi zen. Bere izebaren etxetik joan zenean, Elizondoko plazara joan zen bere lagun hoberenarekin, Elaia.

Elaia ile beltza, luze eta kizkurra zuen, begi urdinak eta izar formako belarritakoak zituen. Maider baino zentimetro bat altuagoa zen eta beti leginsak, mauka motzeko kamiseta eta kaputxa zuen jertse bat janzen zuen. Maiderek Elaia aurkitutakoa erakutsi zion eta Elaia harrিতuta geratu zen. Elaia, segundo batzuk geroago, galdetu zion Maiderrri:

- Zurekin joan naiteke? Oso dibertigarria izan daiteke – esan zion bere aurpegian irribarre batekin.
- Bai, etortzen ahal zara. Baina dibertigarria baino, misteriotsua izango dela uste dut. Ez duzu uste? – esan zuen Maiderek barrez.
- Ba bai, uste dut ere – erantzun zuen biek elkarrekin barre egiten zuten bitartean.
- Eta noiz joango gara?
- Ez dakit. Hurrengo astean udako oporrak hasiko dira eta denbora probatu ahal dugu altxorra bilatzeko.
- Ideia bikaina! – esan zuen protagonistaren lagunak hatz lodiekin goraginez.

Maidere bere etxera bueltatu zenean, bere aita eta amari Elaiaekin kanping batera joango zirela esan zion eta biek baietz esan zuten baina, Maider pixkat harrিতuta geratu zen gezurra zelako eta harrapatuko zutela uste zuelako. Baina ez zen horrela izan. Elaia bere gurasoei gutxi gorabehera berdina galdetu zion eta baietz esan zuten.

Udako oporrak iritsi ziren eta altxorra bilatzera joan ziren. Bi egun eta erdi ibili ziren aireportutik taxitara, aireportutik taxitara eta azkenean iritsi ziren. Bat-batean ez zekiten non zeuden edo zenbat distantzia zegoen bere etxetatik zeuden lekuetaraino. Galduta zeuden! Ez zekiten zer egin, baina lasaitu ziren eta bidea jarraitzen saiatu ziren. Hamar minutu pasa ziren eta iruditzen zuen leku berdinean zeudela. Hamabost, hogeita hamar, berrogei minutu eta oraindik ezer ez. Ez zekiten non zeuden eta hori bai, etsituak zeuden. Elaia esan zion Maiderrri:

- Uste dut hobe izango dela kanping batera joa... - eta Elaia bukatu baino lehen Maiderek espero ez zuen gauza bat esan zion.
- Shshshshsh!! Ez mugitu! – Maiderek seriotasun handiarekin.

Elaia geldirik geratu zen eta galdetu zion:

- Zer gertatzen da?
- Uste dut hortik bizirik dagoen zerbait dagoela.

Ingurua gehiago mugitzen zen, eta bat-batean untxi bat hegan egiten atera zen. Hasieran bihotzeko bat emango ziela uste zuten baina, atera eta gero lasaitu ziren, eta biek batera esan zuten:

- Zer arraio zen untxi hegalari hori? – eta barrezka hasi ziren.
- Eta gainera urdina zen – gehitu zuen Elaiak.

Bidea jarraitu zuten eta ondoren, adarbakar bat bost eskuekin ikusi zuten. Hori gertatu bezain laster jirafa baten gorputza baina lehoi baten burua, berehala txerri bat eulien hegoekin... eta horrela eman zuten bide osoa. Bat-batean kobazulo bat ikusi zuten eta barrura sartu ziren. Barruan zeudenean ez zen ezer ikusten eta Elaiak galdetu zuen:

- Non zaude, Mainer?!?
- Hemen nago! – erantzun zuen Mainerrek Elaia besarkatzen.
- Itxoin, ideia bat daukat – eta motxilatik eskuekin gauzak somatzen, supiztekoen kutxa hartu zuen, supizteko bat hartu eta sua eman zion.
- Askoz hobe - esan zuen Mainerrek Elaiari begira.
- Ba goazen! – esan zuen Elaiak animo guztiz.

Berrogeita bi minutuz ibili eta gero, are mugikorretan nahigabe sartu ziren eta Mainerrek esan zuen:

- Bai, uste dut arrazoia duzula, Elaia. Hobe izango litzateke kanpingera joatea.
- Ez da egia! Baina orain horrek ez du inporta, hemendik atera behar dugu!
- Pelikuletan erlaxatzen dira, ez dira mugitzen eta ateratzen dira.

- Ni ezin naiz momentu honetan erlaxatu.
- Zu ez baldin bazara erlaxatzen, ni ezta ere.
- Itoko gara! Ez! – esan zuten biek batera.

Ito ziren, baino inor espero zuenean hatz egin ahal zuten eta bere ingurura begiratu zutenean, altxorra ikusi zuten. Mainerrek esan zuen:

- Azkenean! Altxorra aurkitu dugu!

Korrika beregana joan ziren eta ireki zutenean urrea aurkitu zuten. Poz-pozik emaitzarekin, etxera joan ziren.

Hala bazan edo ez bazan sar dadila kalabazan eta atera dadila Mainerren plazan.

## OSPITALEAN

Gábor Villar Yániz

### 2. SARIA (LH-5.)

Asier deitzen naiz. Ospitalean nago, eta jada ez dakit zenbat denbora daramadan pareta txuri eta ohe deserosoko gela isil honetan. Ematen du nire bizitzako 12 urteak hemen sartuta eman ditudala. Medikuek gomendatu didate nire bizitzako pasarteren bat idaztea denbora azkarrago pasatzeko, karta jokoez aspertu naute eta. Beraz aukeratu dut hemen bukatzearen arrazoia azaltzea, eta horrek nire bizitza nola aldatu duen kontatzea.

Lehen oso pertsona desatsegina nintzen. Ez nengoen konforme ezerekin eta beti arrazoia nik izatea nahi nuen. Lagunekin oso gaizki portatzen nintzen eta beti liskarrak nituen. Bakarrik lagun on bat izan nuen, baina nire jarrera txarrarengatik bakarrik utzi ninduen.

Nire familiakoekin ere ez zen oso ona nik beti gaizki tratatzen nituelako. Laburtuz, egunero haserre egoten nintzen aberatsen bizimodua nahi nuelako, eta nire jendearekin ordaintzen ari nintzela konturatu nintzen.

Orduan, egun batean, nire klasekoekin liskar handi bat izan nuen. Egia esan, orain pentsatzen dut tontakeria batengatik izan zela. Baina hori orain ez da garrantzitsuena, egindakoa ezin delako atzera eraman. Liskarretatik oso haserre atera nintzen, eta etxerako bidean gertatutakoan pentsatzen egon nintzen etengabe. Nik arrazoia nuela konbentzituta nengoen. Orduan ez nengoen errepideari adi eta zoritxarrez abiadura handia zioan bizikleta batekin talka egin nuen.

Zorte handia izan nuen hortik gertu mediku bat zegoelako, eta azkar lagundu zidatelako. Baina, hala ere, hemen amaitu nuen. Nire ikaskideak, enteratu bezain laster, ni ikustera etorri ziren eta askoren laguna egin nintzen. Familiarekin berdina gertatu zen. Nahiz eta ni hain gaizki portatu nintzen, harritu nau guztiek ni hainbeste zaintzea. Honek guztiak nire izaera hoberako aldatu du, eta askotan izandako jokaeraz damutzen naiz.

Hara! Oraintxe bertan mediku bat sartu da nire gelan esanez bi egun barru ospitaletik aterako naizela. Hainbeste denboran leihotik begiratzen eta azkenean berriro kalera aterako naiz! Honek, gauzak gehiago balo-ratzera eraman nau.

Eta hala bazan ala ez bazan sar dadila Asier eta bere lagunak plazan.

## EGURGILEEN ABENTURA

Manex Elizalde Gartzaron

### 1. SARIA (LH-6.)

Duela hainbat urte, Nafarroako mendialdeko Eraso herrian, Gastearena familia bizi zen. Erasoko etxe gehienetan bezala, Gastearena familian ere asko ziren: zazpi anai eta gurasoak. Txikitatik animaliekin eta zelaietan lan egiten zuten zazpi anaiek. Zelaietan lanean zeuden udako goiz batean, egurgile bat hurbildu zitzaien. Frantziako Pirinioetan egurgile lana egiteko gazteen bila zebilen. Gastearena familiako lau anaiek berarekin joatea erabaki zuten: Jokin, zaharrena eta arduratsua zen; Vicente, indartsua eta ausarta zen; Kristobal, oso langilea eta lasaia zen eta Antonio, sukaldari ona zen baina pazientzia gutxi zuen.

Egun pare bat bidaiatu ondoren, Frantziako mendira iritsi ziren. Hiru egunetan egurrezko etxola sendo bat eraiki zuten. Han igaroko zituzten hurrengo zortzi hilabeteak Erasora bueltatu arte. Egun osoa lanean ematen zuten: Jokinek zuhaitzen enborrak mozten zituen, Vicentek eta Kristobalek adarrak mozten zituzten eta Antoniok bitartean, janaria prestatzen zuen. Hainbeste lan egin ondoren oso nekatuta amaitzen zuten eguna eta goiz joaten ziren ohera.

Jai egunetan etxolatik gertu zegoen ibai batean bainatzen ziren lau anaiak. Pozik zeuden mendian eta konturatu gabe udazkena iritsi zen. Gau ilun batean, denak lo zeudenean, Vicentek soinu arraro batzuk entzun zituen atearen kanpoaldean. Beldurrik gabe, Vicentek atea zabaldu zuen eta atean hatzapar batzuen arrastoa ikusi zuen. Mendi hartan hartzak bizi zirela entzun zuten anaiek. Handik aurrera kontuz ibiltzea erabaki zuten lauek. Hurrengo egunean Jokinek esan zuen:

- Ibaiaren ondoko baserri batean ardiak desagertu egin dira.
- Agian hartza izan da! – esan zuen Vicentek.

Inguruko baserrietatik ardi gehiago desagertu ziren egun haietan. Artzainak, gero eta kezkatuago, ez ziren ardiak bakarrik uztera ausartzen.

Pedro izeneko artzain bat lau anaien laguna zen askotan gazta eramaten zielako txabolara.

- Atzo ardi batzuk hilak agertu ziren berriz. Zerbait egin behar dugu! – esan zuen haserre.
- Kristobal eta ni laguntzeko prest gaude! – esan zuen Vicentek.
- Ez, ezin zarete joan oso arriskutsua bait da! - esan zuen Jokinek.
- Joan egin behar dugu. Honek ezin du horrela jarraitu! – berriz Vicentek.

Gau horretan etxola ondoan zegoen erlauntzako eztiarekin tranpa bat prestatu zuten: lurtean zulo bat egin ondoren gainean sare bat jarri zuten. Zuloa hosto eta belarrekin estali zuten, gainean ezti panel bat jarrita. Vicente eta Kristobal ondoan zegoen zuhaitzaren gaineko adarretan pasa zuten gau osoa, hartza harrapatu nahian. Nahi gabe, bi anaiak lo geratu ziren. Hurrengo goizean, esnatzerakoan, Jokinek bi anaiei oihukatu zien:

- Eztia desagertu egin da eta hartz atzazkal bat dago zuhaitz honen enborrean!
- Begira! Eztiaren arrastoa dago hemen! – oihukatu zuen Vicentek.

Anaiak, eztiaren arrastoari jarraituz, kobazulo batera iritsi ziren. Barrura sartzean sorpresa handi hartu zuten: hartz erraldoi bat zegoen, ondoan bi hartz-kume zituen eta hiruak lo zeuden. Orduan lau mutilek dena ulertu zuten: hartza janari bila zebilen kumeak eta berak neguan gosea ez pasatzeko. Hartza bakean uztea erabaki zuten.

Hartzek negu osoa lo pasatu zuten. Udaberrian esnatu zirenean, Pirinioetako beste mendi batera joan ziren janari bila. Handik aurrera, lau anaiak zeuden mendietan, artzainak berriz ere lasai bizi ziren.

Azkenean, lau anaiei etxera bueltatzeko ordua iritsi zitzaien. Egurra mozten irabazitako diruarekin Erasoko etxea konpondu zuten eta familia pozik bizi izan zen urte askotan. Urteak pasa ondoren, Jokin aitona izan zen eta bilobei hartzaren istorioa kontatu zien. Biloba batek Egurgileen abentura idatzi zuen arte.

## LINTERNA BATEKO TXIMELETA

Nahia Hernandez Lopez

### 2. SARIA (LH-6.)

“Ez zen asko pasatu momentu horretatik, baina gutxi ezta ere. Baina ez dakizu zertaz hitz egiten ari naizen, ezta? Hobe da hasieratik hastea; beti bezala, ipuin guztiak horrela hasten direlako. Dena normalegi hasi zen: gosaldu nuen, eskolara joan nintzen, bazkaldu, eskolaz kanpoko jardueretara joan, musika... Etxera bueltatu eta afaldu nuen beti bezala. Oso nekatuta nengoen, horregatik, hortzak garbitu eta ohera joan nintzen.

Baina konturatu gabe, leku ilun eta beldurgarri batean agertu nintzen. Nire gaineratik, kotxeak eta kotxeak pasatzen ziren, hori izan zen esnatu ninduen. Kilkerrak entzuten ziren baina ez zegoen beste pertsonarik. Altxatu eta eskuzko linterna bat aurkitu nuen, eta horri esker, leku ilun hartatik atera nintzen. Gora begiratu nuen: zubi bat! Baina bat-batean pentsatu nuen “zergatik egiten zait ezaguna?”. Aurrerantz joan nintzen linternari bueltak ematen ari nintzen bitartean. Ura entzuten nuen, momentu hartan ez zen argia gidatzen ninduen, uraren soinua baizik. Azkenean, ibai bat ikusi nuen eta “Arga ibaia!” oihukatu nuen. Harrizko bidetxo batetik jarraitu nuen ibaia, baino handik gutxira euria egiten hasi zen. Orduan, hango basora abiatu nintzen, agian, zuhaitz batean geratu ahal nintzen eta euria bukatzen zuenean nire bidaia jarraituko nuen etxeraino. Momentu horretan hotzez nengoen, basoaren erdian eta galdera berdina planteatu nuen: “Zergatik egiten zait ezaguna?”. Euria pasatu zen eta zubi gorri baten gaineratik pasako nintzen, Arga ibaia gurutzatu eta zubiaren beste aldera pasatu nintzenean...”

- BADAKIT! Badakit! – esan zuen Beñatek-. Han barbakoak egiten diren lekua da!
- Beñat! Ni hori esan behar nuen. Nola jakin duzu? – galdetu zion Irunek haserrearen aurpegia jarriz.
- Irupe, Irupe, Irupe... - jarraitu zuen Beñatek – kotxean istorio berdina behin eta berriro kontatzen didazu! Egutero!
- Ah – lotsatuta.

- Gainera, badakit nola hasten den, baita nola bukatzen den ere. Zure bertsio guztiak, zure komikiak...
- Isildu zaitez! – oihukatu zion Irunek- eta utzi nazazu jarraitzen!
- Zergatik ez duzu “Bazen behin” esan, Irupe? – galdetu zion Maddik.
- Oso “cursia” dela esaten du eta – Beñatek bere hatzekin komatxoak egiten – Ez dakit zer esan nahi duen horrek.
- Egia da! – Irunek oihuka-. “Orain dela gutxi” hobeto geratzen da!
- Baina ez duzu esan...
- Utzi bukatzen! – Irunek Maddi moztan – Beno, jarraituko dut:

“Beñatek esan duen bezala, barbakoak egiten diren lekura iritsi nintzen, ilun eta isilpean. Handik farolak ikusten ziren, horregatik, linterna han utzi nuen. Haizeak atzera bultzatzen ninduen, hala ere, etxerantz jarraitu nuen. Parkera abiatu nintzen eta bat-batean nire gorputza gelditu zen. Hotzikarak sentitzen nituen eta halakoan, farola guztiak itzali egin ziren. “Kaixo?!” oihukatuz egon nintzen hurrengo 5 minutuak. “Nor bait dago hemendik?” ere galdetu nuen, baina ezer ez, ni bakarrik nengoen. Hotzez, etxera azkarrago joan nintzen. Izarrek, normalean baina distira gehiago egiten zuten eta han geratu nintzen, beraiei begira, inoiz ikusi ez banitu bezala. Baina jarraitu behar nuen. Bat-batean, puntu txiki bat ikusi nuen urrunean niregana zetorrena. Pixkanaka-pixkanaka nire albora iritsi zen eta bertan kontu...”

- Zer zen puntutxo hori? – galdetu zuen Maddik Irupe moztuz.
- Orain jakingo duzu. Baina isilik bazaude agian hobeto entzungo duzu!

“Bertan konturatu nintzen tximeleta distiratsu bat zela”.

- Tximeleta bat? – esan zuen Maddik ikaratuta-. Nondik atera duzu tximeleta bat?
- Berdina pentsatu nuen hori entzun nuenean.
- Utzi jarraitzen, mesedez! Bestela istorioak ez dauka zentzurik!

“Argi pila ematen zuen horrek eta haren distiraz, tximeleta jarraitu nuen. Zuhaitz batzuetara iritsi ginen”.

- Eta han Arga ibaiaren basora iritsi ziren – esan zuten Beñatek asper eginarean aurpegiarekin.
- Ba ez! – esan zion Irunek – Barbakoak egiten diren lekura iritsi ziren!
- Bah, beste guztia badakit!
- Beno, jarraituko dut:

“Tximeleta linterna batean gainean jarri zen. Lehen hartu nuen linterna zen! Lurretik hartu eta linternaren kristala apurtuta zegoela konturatu nintzen. Ez zuen argirik ematen, ezta pixkatxo bat ere ez”.

- Nola da hori posible? – galdetu zion Maddik – Eskuzko linternek ez diote funtzionatzeari inoiz uzten.
- Oraindik ez zara konturatu? Tximeleta hori lin... mmmm!!
- Ez egin spoilerrik! – esan zion Irunek Beñati bere eskuarekin Beñaten ahoa estaliz -. Benetan ahoa estali behar dizut nire istorioarekin jarraitzeko? Ba horrela jarraituko dut:

“Orduan, tximeleta linternaren barrualdean sartu zen. Horrela konturatu nintzen tximeleta linternaren barrualdean egon zela denbora guztian”.

- Hori esan behar nuen! – esan zuten Beñatek Irunereren eskua bere ahotik kenduz.
- Orduan jarraituko dut:

“Tximeleta linternatik atera zen eta beste leku batera eraman ninduen. Han linterna pila bat zeuden eta bi aldiz pentsatu baino lehen, linternak apurtzen hasi nintzen. Banaka joanez, azkenean tximeleta asko zeuden multzo handi batean. Denak atera nituenean, zerura hegan egin zuten elkarrekin batera eta ESKERRIK ASKO idatzi zuten zeruan.

Tximeletak etxera joan ziren eta ni ere. Bat-batean esnatu nintzen eta dena amets bat zela konturatu nintzen. Baina nire leihoan, tximeleta hori itxaroten ari zen eta gero, hegaz joan zen”.

- Ah! – esan zuten Maddik – ez da oso interesgarria izan.
- Orduan, zegatik ez duzu zuk beste istorio bat kontatzen? – galdetu zion Irunek.
- Ez didazulako utzi ipuin osoan esaten! – erantzun zuten Maddik.
- Ba orain uzten dizut, bukatu egin dudanez...
- Nik kontatuko dudan istorioa benetan beldurra ematen du.
- Ba hasi! – esan zion Beñatek asper eginda.
- Bazen behin...

RING! Txirrinak jo zuten.

- Benetan? – esan zuten Maddik haserre.
- Gero kontatuko diguzu, Maddi – esan zion Beñatek-. Klasera joan behar dugu ingelesa egitera.
- Ba... agur!



**NON NAGO?**June Carlos Hernández  
1. saria (DBH-3)

Onetik altxatu naiz eta leihotik begiratu dut. Dena lehor dago. Laku txiki bat eta bi zuhaitz daude. Nire lehenagusinaren oihuek esnatu naute. Oihuka ematen ditut egunak.

Egunero bezala, erosketak egitera joan naiz. Ur pixka bat, arroza eta fruta batzuk erostera. Jende asko jaten da merkatura eta normalean oso zaila izaten da bertan erostea.

Bat-batean norbaiteskutik hartu nau eta gela txiki batean sartu nau. Bakarrik nago. Zinta beltz bat daukat ahoan eta eskuak lotuta. Ez dakit zer gertatzen ari den baina bat-batean nire aita ikusi dut. Ondoa daukat, mozkortuta.

mozkortuta.

**IZENBURUGABEA**Isen Molero Vesellinou  
2. saria (DBH-3)

Gehien gustatzen zaidana besteena besteena janari etiketatua jatea da. Asko gustatzen zait besteena haserre aurpegia ikustea "Nork jan du berriz hau?" esanez. Oso barregarria da.

Beti bezala, Tracey Millerren taperra hartu nuen. Jaten hasi nintzen. Inork ez zekien nire sekretua, baina bat-batean, lagun bat sartu zen gelara, eta han ikusi ninduen. Azkar aterata zen. Bere aurpegilagatik pentsatu nuen ez ziola inor sinistuko.

Hurrengo egunean istorioa errepikatu zen eta nire laneko beste lagun batek galdetu zuen:

- Nork jan du Tracey Millerren bihotz transplantea?!

**NOR DA HURRENGOA?**Naroa Pérez  
1. saria (DBH-2)

Kaixo, Nagore naiz eta psikopata naiz.

Urtero lortzen dut nire gurasoak oso harro egotea nirekin. Horrela nik nahi dudana bezala egiten dituzte gauza guztiak eta ez dute zalantzarik jartzen. Orain ez ditut nire gurasoak behar, horregatik gaur hilko ditut.

Nire aita bainugelean sartzen ari da. Nire seinalea da. Sukaldera joan naiz, labana hartu dut eta bainugeleara joan naiz. Nire amak korrika egin du bainugeleara oihuek entzun direnean, baina ni prest nago eta nire ama erraz hil dut.

Gorde dut arma nire poltsikoan eta buelta bat ematera joan naiz burua argitzeako, plana egiteko poliziak ezer ez aurkitzeko.

Nor da hurrengoa?

**NIRE LAGUN ONENA**June Arraras Valdivia  
2. saria (DBH-2)

Ni egunero goizean esnatzen naiz. Niri gustatzen zait goiz esnatzea bai-na ez daukat zereginiik. Baina gauza bat daukat, ez da interesgarria nahiz eta niretzat garrantzitsua den. Nire laguna esan nahi dut. Ez dakit bere izena, baina maite dut. Janaria eta maitasuna ematen dizkit.

Gizon altu bat ere badago eta ez da ona. Gizonak mina egin zidan. Ikusten dudanean beldurtu egiten naiz.

Baina egun horretan dena bukatu zen. Ni nire kaiolan esnatu nintzen, nire isatsa mugitzen hasi nintzen nire laguna ikusi nuenean. Gizon altuaren oihuek entzun ditut. Zelalari askatu ninduen, ni familliarekin.

Zer gertatu zaito nire lagunari? Hori da nire duda.

**IKURRINAREN ASMAKUNTZA**

Julen Agirre  
1. saria (DBH-1)

Bazen behin, duela urte asko, Euskal Herriko basoetan, Basajaun izeneko pertsonaia mitologikoa. Basajaunek artzainei laguntzen zien, baina bakarrik sentitzen zen eta espiritu txarren beldur zen.

Basajaun geroz eta beldurtuago zegoen, eta horren ondorioz, artzainei ez zien hain ongi laguntzen. Artzainak haserre zuden eta egoeraren berrri eman zioten: 20 ardi ehizatu zizkieten artzainei. Artzainek gauza desberdinak eskaini zizkieten, baina Basajaun ez zuen ezerk konbentzitzen. Orduan, artzain zaharrenek ikur bat egitea proposatu zion eta horrek bai konbentzitu zuen.

Basajaunek egin zuen ikurra bere atean jarri zuen eta horrez geroztik beldurra galdu zuen. Ikurra famatua egin zen eta gaur egun ikurrina bezala erabiltzen dugu.

Orain dela urte asko, Euskal Herriko herri batean bonba bat erori zen soldaduak lo egiten zuden bitartean. Bapatean, beste bonba bat erori zen eta Euskal Herriko lehenengo guda hasi zela esan zuten.

Hori dela eta, bunkerretara joateko esaten hasi ziren, baina soldaduek ez zuten bunkerrik ezta defendatzerara joateko modurik. Egun batean, telebistan gertatzen ari zena agertu zen eta jendeari pena eman zion.

Soldadu batek anaia bat zuen eta kasualitatez asmatzaillea zen. Orduan hegazkin bat hartu zuen eta soldaduak zuden lekura joan zen. Allegatu zenean denak piezen bila hasi ziren tren bat eraikitzeke. Azkenean, trenak eraiki zuten.

**INURRIA**

Aritz Pereda Gimeno  
1. saria (DBH-2)

Haur bat, Josetxo izena zuena, egun batean putzu batean erori zen. Putzua ate majiko bat zen, eta hiri arraro batera iritsi zen. Bakarrik zegoen.

Jendea bilatzen hasi zen, baina ez zuen inor aurkitzen, eta ez zekien nola itzuli. Bat-batean norbait hitz egiten hasi zitzaion. Hitz egiten zuen inurri bat ikusi zuen. Josetxok galdetu zion etxera bueltatzeko modurik baze- goen, eta inurriak baieztu esan zion. Etxe gorri batera joan behar zuen eta hor armairu batean sartu.

Josexo etxe gorriara sartu, armairua ireki eta bertan preso geratu zen. Inurriak Josetxo jaten hasi ziren; tranpa bat zen eta Josetxo hor hil zen.

**DORTOKA MAITIA**

2. saria (DBH-3)

Bazen behin Julii izeneko sirenatxo txiki bat. Julii bere amonarekin bizi zen. Juliri kotxeak gusatzen zitzaizkion nahiz eta txikia zenean bere aitak eta amak kotxe istripu batean bizia galdu.

Julik ez zuen lagun askorik. Bere lagunik hobereña itsasoko dortoka bat zen. Egunero nondartzara jaten zen dortoka ikustera eta berarekin hitz egitera. Juliren herrian zabor asko sartzen zen eta neskek beldurra zeu- kan bere lagun dortokari zabor hori iritsia, eta dortokaren etxea egunera garbitzen zuen; maiztazaren 13a iritsi zen arte. Egunero bezala hurbildu zen baina aldi horretan dortoka ez zen agertu.

Egunak pasa eta dortoka ez zen agertu. Julii oso triste zegoen, eta bihotz- zean min handiarekin gutun bat idatzi zion dortokari. "Dortoka maitia..."



Ayuntamiento de Barañain  
Barañaingo Udala

Udaleren eskulara  
Servicio municipal  
de eskulara

Gobierno  
de Navarra  
Nafarroako  
Gobernua

euskarabidea



2025

# NABANDIA